

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5077

158/2023 DEKRETUA, urriaren 24koa, zeinaren bidez kargutik kentzen eta izendatzen baitira Etxepare Euskal Institutuaren Patronatuko kideak.

Apirilaren 20ko 3/2007 Legearen bidez, Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute sortu eta arautu zen, honako helburu honekin: euskara eta euskal kultura Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo sustatzea, hedatzea eta proiektatzea, bere hizkuntza ofizialetako edozeinetan eta zeinahi adierazpen, euskarri, bide eta adierazmoldetan.

Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute sortu eta arautzeko apirilaren 20ko 3/2007 Legeak eta Etxepare Euskal Institutua / Basque Instituteraren antolakuntza- eta jarduera-araudia onartzen duen maiatzaren 13ko 88/2008 Dekretuak ezartzen dute kide anitzeko bi organok (Patronatua eta Zuzendaritza Kontseilua) eta kide bakarreko batek (zuzendaria) osatuko dutela Etxepare Euskal Institutua.

Era berean, Etxepare Euskal Institutuaren antolakuntza- eta jarduera-araudia onartzen duen maiatzaren 13ko 88/2008 Dekretuaren 10. artikulua Patronatuaren osaera ezartzen du, berezkoak diren eta berezkoak ez diren bokalak bereizita. Dekretu horren 10.1 d) artikulua arabera, berezko bokala izango da Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako foru-aldundi bakoitzaren ordezkari bat, gutxienez zuzendari mailakoa.

Berezkoak ez diren kideei dagokienez, aipatutako dekretuaren 10.2 artikuluko a) apartatuak ezartzen du euskal letrak, filologia eta kulturaren 15 ordezkari izango direla kide, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluak izendatuko dituela, lehendakari exekutiboak proposatuta.

Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute sortu eta arautzen duen apirilaren 20ko 3/2007 Legearen 7.3 artikuluan eta Etxepare Euskal Institutua / Basque Instituteraren antolakuntza eta jarduera-araudia onartzen duen maiatzaren 13ko 88/2008 Dekretuaren 10.4 artikuluan ezarritakoarekin bat, Patronatuko ez-berezko kideak lau urterako izendatuko dira, eta beste lau urterako berriro ahal izango dira, baina behin bakarrik jarraian. Epe hori igaro ondoren, beren eginkizunak betetzen jarraituko dituzte, harik eta haien ondorengoen izendapenak ondorioak izan arte.

Era berean, aipatutako dekretuaren 10.6 artikulua ezartzen du Patronatuko kideek automatikoki galduko dutela beren izaera izendatzerakoan zuten izaera edo kargua galtzen dutenean.

Azkenik, dekretu horren 10.5 artikuluan adierazitakoaren arabera, berezkoa ez den bokal batek bere kargua hutsik uzten badu izendatu zuten aldia amaitu baino lehen, proposatu duenari jakinaraziko zaio gehienez ere hilabeteko epean Gobernu Kontseiluari beste proposamen bat egin diezaion, eta hark izendapena egingo du, betetzeko geratzen zaion aldirako.

Ondorioz, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean eta Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute sortu eta arautzeko apirilaren 20ko 3/2007 Legearen 6., 7. eta 8. artikuluetan (erakunde horren Patronatuaren eta Zuzendaritza Kontseiluaren osaera arautzen du) ezarritakoarekin bat etorriz, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2023ko urriaren 24 an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Euskal letrak, filologia eta kultura ordezkatzeko dituzten Etxepare Euskal Institutuaren Patronatuko ez-berezko kide hauek berritzea, lau urterako:

– Oscar Castaño Valeiron jauna.

– Laura Etxebarria Lus andrea.

2. artikulua.– Euskal letrak, filologia eta kultura ordezkatzan dituzten Etxepare Euskal Institutuaren Patronatuko ez-berezko kide kargutik kentzea, kargua iraungi zaielako:

– Beatriz Herráez Diéguez andrea.

– Leire Bilbao Barruetabeña andrea.

– Myriam Miranda Berroeta andrea.

3. artikulua.– Euskal letrak, filologia eta kultura ordezkatzan dituen Etxepare Euskal Institutuaren Patronatuko ez-berezko kidea kargutik kentzea, izendatu zutenean zuen kargua galdu duelako:

– Eduardo Javier Ruiz Vieytez jauna.

4. artikulua.– Euskal letrak, filologia eta kultura ordezkatzan dituen Etxepare Euskal Institutuaren Patronatuko ez-berezko kidea kargutik kentzea, postuari uko egin diolako:

– Ana López Asensio andrea.

5. artikulua.– Etxepare Euskal Institutuaren Patronatuko berezko bokala kargutik kentzea, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari gisa, kargu hori galdu duelako:

– Lorea Bilbao Ibarra andrea.

6. artikulua.– Euskal letrak, filologia eta kultura ordezkatzan dituzten Etxepare Euskal Institutuaren Patronatuko ez-berezko kide hauek izendatzea, lau urterako:

– Edurne Ormazabal Azpiroz andrea.

– Miren Agur Meabe Plaza andrea.

– Maddi Arana Bueno andrea.

7. artikulua.– Euskal letrak, filologia eta kultura ordezkatzan dituen Etxepare Euskal Institutuaren Patronatuko ez-berezko kide izendatzea 2024ko otsailaren 7ra arte:

– Xabier Riezu Arregi jauna.

8. artikulua.– Euskal letrak, filologia eta kultura ordezkatzan dituen Etxepare Euskal Institutuaren Patronatuko ez-berezko kide izendatzea 2025eko uztailaren 10era arte:

– Fernando Sáenz de Ugarte jauna.

9. artikulua.– Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Bizkaiko foru-diputatua Etxepare Euskal Institutuaren Patronatuko berezko bokal izendatzea:

– Leixuri Arrizabalaga Arruza andrea.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek 2023ko uztailaren 10etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko urriaren 24an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.